

# ASTE SANTUA 2024

## ESKERTZA ETA SANTUAK JASOTZEKO DEIA

Herritar estimatuak:

Orain dela 300 urte baino gehiago gure aurrekoek hasi zuten tradizio honek bizirik dirau. Aldaketa garaian gaude eta aurrera jarraitzeko sortu den indar berria azpimarragarria da. Gazte asko eta askoren inplikazioa txalogarria benetan.

Batetik, eskerrak eman nahi dizkizuegu urteetan lanean ari zareten guztioi ahaztu gabe gure artean ez daudenak. Eta bestetik, eskerrik beroenak aurtengo prozesioa aurrera ateratzeko lan egin duzuen guztioi: txukunketa lanak, arropak, garbiketa, apainketa, prozesioko egunetan atera zareten santu-eramaile, monagilo, soldadu erromatar, nazareno, penitente, aingeru, San Migel, txistulariak, korua, herritarrak, eta abar luze bat.



Azkenik eta Aste Santuko lanekin amaitzeko, pasoak, arropak eta bestelakoak jasotzeko laguntza eskatzen dizuegu, **APIRILAREN 20an, larunbatean, 9:00etan, elkartuko gara ELIZAN.**

Eskerrik asko denoi eta jarrai dezagun abiatu dugun bide honetatik.

Ondo izan!

Aste Santua Taldea

2024ko apirila